



Arartekoaren 2022R-857-19 Ebazpena, 2022ko apirilaren 22koa. Horren bidez, Erandioko Udalari gomendatzen zaio berrikerik dezala gizarte-larrialdietarako laguntzen justifikazio osagarriaren errekerimendua eta itzuli dezala ordaindutako zenbatekoa.

Aurrekariak

1. Pertsona bat gizarte-larrialdietarako laguntzen (GLL) onuradun izan zen; guztira, 1.759,32 € jaso zituen, honela banatuta: 973,66 €, interesen amortizazioa; 540€, mantenu-gastuak; eta 245,76 €, energia-gastuak. Erandioko Udalak jakinarazi zion ez zituela justifikatu energiari zegozkion gastuak eta mantenu-gastuak, eta aipaturiko kontzeptuengatik eskaturiko laguntzaren zenbatekoa justifikatu zezala eskatu zion (1759,32 €, honela banatuta: 973,66 €, interesen amortizazioa; 540€, mantenu-gastuak; eta 245,76 €, energia-gastuak).

Zehazkiago, honako hau aurkeztu zezala eskatu zion:

“Hori guztia ikusita, eskatu zenuen kopurua justifikatu beharra duzu. Kopuru hori 2018rako aurkeztu zenituen urteko gastuen agiriak oinarri hartuta kalkulatu zen. INTERESEN AMORTIZAZIOA epe barruan eta egoki justifikatu zenuen, baina ENERGIA eta MANTENU-GASTUENTZAT aurkeztu zenituen agiriak eskatutako kopuruaren %66,53 bakarrik justifikatzen du, eta, beraz, emandako kopuruaren %33,47 itzuli behar duzu.”

Erandioko Udalak jakinarazpen horretan adierazi zuenez:

“Laster hasiko dugu justifikatu gabeko 2018ko Gizarte Larrialdietarako Laguntzak itzultzeko Administrazio Prozedura, eta behar bezala jakinaraziko dizugu dagokionean.”

Kexagileak bere kexa-idazkian jakinarazi zuenez, 2018ari zegozkion Iberdrolako gastuetan ordaindutako fakturak (312,24 €) eta OHZren faktura (163,69 €) aurkeztu zituen. Gaineratu duenez, 2018an zehar hipoteka-mailegua ordaindu izanaren ziurtagiriak erantsi zituen.

2. Arartekoak, kexa izapidetzeko onartu zuen, eta, GLLen justifikazio osagarriaren errekerimenduari buruzko informazioa eskatu zion Erandioko Udalari.

Erandioko Udalak, egindako informazio-eskaerari erantzunez, adierazi zuen kexagileak GLL eskatu zuela, 3.256,80 eurokoa.





2018ko ekainaren 15eko Alkatetzaren 1363/2018 Dekretuaren bidez, aipatutako laguntza eman zitzaion, 1.759,32 eurokoa, hiru kontzeptu hauengatik: Beste mantentze-gastu batzuk (ura, OHZ, jabeen erkidegoa, etxeko aseguru) 545 euro, energia (argia) 245 euro eta amortizazio-interesak (hipoteka-mailegua) 973,66 euro.

(...) jaunak laguntzaren xede izan ziren kontzeptuen justifikazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu zuen, baina Udalen arabera, ikusten denez, ez da nahikoa. Izan ere, horrek ez du eskatutako zenbateko guztia justifikatzen, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/20003 Lege Orokorrean, Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretuan eta 777/2018 Minorazio-dekretuan (Erandioko udalerrian onartua 2018ko GLLetarako) adierazten den bezala.

Horren ondorioz, idazki bat bidali zion argitzeko eskaturiko laguntza osoa (3.256,80 €) justifikatu behar zuela, eta ez bakarrik emandako zenbatekoa (1.759,32 €). Era berean, justifikatzeke zegoen zenbatekoa adierazi zion.

Erandioko Udalak erakunde honi jakinarazi zion zenbatekoa itzultzeko prozedura bat egitea aurreikusten zuela, baina ez zuen adierazi hori noiz egingo zen.

3. Arartekoak, jasotako informazioa aztertu ostean, galdetu zuen ea azkenean itzultzeko prozedura bat abiarazi zen, eta informazio gehiago eskatu zuen Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko (38/2003 Legea) agindu zehatzen inguruan. Erandioko Udalak uste du horiek aplikatu behar direla kasu honetan eta, hori horrela, Arartekoak galdetu zion ea zergatik uste zuen ez zela aplikagarria GLLak arautzen dituen urtarrilaren 18ko 4/2011 Dekretua (4/2011 Dekretua) itzultzeko betebeharrari dagokionez.

Era berean, aldeztatik zenbait gogoeta helarazi zituen (errepikakorrak ez izatearren, gero aipatuko ditugu).

4. Erandioko Udalak bere erantzunean adierazi zuen ez zuela abiarazi itzultzeko prozedura, izan ere, kexagileak, 2021-11-20an justifikatzeko zegoen zenbatekoa itzuli zuen, hau da, 262,96 €.

Horrez gain, jakinarazi du Udalak ez duela abiarazi itzultzeko espedienterik, izan ere, helburua da pertsona onuradunek emandako laguntza justifikatzea, eta horretarako araudi aplikagarriak baimentzen dituen erraztasun guztiak eskaintzen zaizkie.

4/2011 Dekretuaren 7. artikulua aipatzen du, honako betebeharrak hau ezartzen duena: *"a) jasotako gizarte larrialdiko laguntzak emandako xederako erabiltzea, eta*





c) jaso behar ez ziren edo zenbateko desegokia duten prestazioen zenbatekoa itzultzea.”

Hala ere, honako hau gehitzen du: *“artikuluari jasotakoari kalterik egin gabe, kontuan izango da gizarte zerbitzuek egiten duten balorazioa gastu-beharrizanaren inguruan, eta horrek egoera babesgabea dauden pertsonen inklusioan laguntzeko daukan garrantziaren inguruan.*

Beraz, (...) jaunaren kasuan, eta gainerako eskaerentarako, derrigorrez aplikatu eta bete beharreko araua 4/2011 Dekretua eta bere aldaketak dira: Urtarrilaren 16/2017 Dekretua eta ekainaren 5eko 85/2018 Dekretua.

Hala ere, justifikazio eta itzulketa gaiei dagokienez, Gizarte Larrialdietarako laguntzei buruzko Dekretuaren erredakzio anbigua dela eta, erreferentzia moduan hartu da Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra, eta eskatutako zenbateko osoa justifikatu beharko da. Horrela izanik, emakidak eskatutako zenbatekoarekiko korrelatiboak dira, kontuan izanda minorazioen urteroko dekretua.”

Jarraian, honako hau adierazten du: *“Gizarte Zerbitzu horien oinarria, legez betez, erabiltzaileen eskubideak bermatzea eta informazio, orientazio... zerbitzu pertsonalizatua eskaintzea da, kalitatezkoa eta gardena.*

Horretarako, legea betetzen saiatzen gara, eta oso presente ditugu laguntzen izaera bera, persona bakoitzaren ezaugarriak, eta Gizarte Larrialdiko Laguntzak eskatutako kontzepturako erabiltzea. Horrela, iruzurrak eta bidezkoak ez diren laguntzak saihestu nahi ditugu, gizarte zerbitzuen erabiltzaileen eskubide eta betebeharrak babestuz.”

Udalak honako hau dio: *“Amaitzeko, esan nahi dugu zure ekarpena oso aberasgarria eta baliagarria iruditu zaigula gure zerbitzuaren xedeko kolektiboarentzat, eta etorkizuneko prozeduretarako ere kontuan izango dugula.”*

Gogoetak

LEHENENGOA. Erandioko Udalak GLL gisa eskatutako zenbateko guztia egiaztatzea eskatu du.

Erandioko Udalak honako araudi honen arabera justifikatu du aipaturiko errekerimendua:





Alde batetik, 777/2018 Minorizazio-dekretua, 2018an eman beharreko GLLen gehieneko zenbatekoen minorizazioa eta zehaztapena onartzen da. Horren arabera, Udalak Enplegu eta Gizarte politiketako sailburuaren 2018ko martxoaren 14ko Aginduak emandako ahalmena baliatzen du. Agindu horrek ezartzen ditu, 2018rako, Gizarte-behar Larrietarako Laguntzetan jasotako berariazko gastu guztietarako gehienezko zenbatekoak, haiek ordaintzeko esleitutako kredituen banaketarako irizpideak, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historiko eta udal bakoitzarentzat 2018. urterako aurrekontu-mugak finkatzen dira (2018ko martxoaren 14ko Agindua).

Hori aplikatzearekin batera, kontzeptu bakoitzari aplikatu ahal zitzaion zenbatekoa murriztea erabaki zuen.

Beste alde batetik, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra aipatzen da erantzunean. Erandioko Udalaren ustez araudi hori aplikagarria da uste baitu 4/2011 Dekretuaren idazketa anbigua dela justifikazioari eta itzulketari dagozkion kontuetan; hortaz, eskaturiko zenbateko osoa justifikatzeko eskatzen du.

Nolanahi ere, bere erantzunean ez ditu aipatzen aplikagarritzat jotzen dituen arau-aginduak; hortaz, Arartekoak bidalitako informazio gehiago eskatu zuen, zeina ez baitzen erantzun; hortaz, Erandioko Udalak ez ditu zehaztu aplikagarritzat jotzen dituen 38/2003 Legearen arau-aginduak.

BIGARRENA. Arartekoaren ustez ez da aplikagarria 38/2003 Legea, eta ez du uste 4/2011 Dekretua anbigua denik justifikazioari eta itzulketari dagozkion kontuetan.

GLLak laguntzarako prestazio ekonomikoak dira eta araudi propioa dute: Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea (18/2008 Legea), 4/2011 Dekretua eta urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretua eta aldatzeko ekainaren 5eko 85/2018 Dekretua. Era berean, urtero araudi espezifikoak onartzen da. Hala, 2018an, dagoeneko aipatu den 2018ko martxoaren 14ko Agindua.

18/2008 Legearen xedea da Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea, eta, horren barruan, beharrezko prestazio ekonomikoak eta tresnak izateko eskubidea arautzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan baliatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial edo ekonomiko ez dutenei laguntzeko, bai bazterkeria-arriskuari aurre egiten, bai bazterkeria pertsonala, soziala eta laborala arintzen, bai gizarteratzea errazten (1. artikulua).

Hori garatzeko, aurreko arauak eman dira, eta, horiei esker, arau-aginduak izan daitezke aplikatu beharreko araudiaren ez-betetzeari erantzuteko. Aurreko arau-esparruan itzultzeko prozedura bat aurreikusten da (4/2011 Dekretuaren 25. artikulua eta hurrengoak).



HIRUGARRENA. Arartekoaren iritziz, GLLen izaera ez da guztiz egokitzen dirulaguntzei buruzko araudira. Dirulaguntza kontzeptua definitzen duen 38/2003 Legearen 2. artikulua aplikatuz, dirulaguntza onuradunen zuzeneko kontraprestaziorik gabeko diruzko xedapen bat da; eta horrek antzekotasun bat du GLLekin, izan ere, zuzeneko kontraprestaziorik gabeko diruzko xedapenak dira.

Hala ere, ez ditu betetzen gainerako helburuak:

"b) Que la entrega esté sujeta al cumplimiento de un determinado objetivo, la ejecución de un proyecto, la realización de una actividad, la adopción de un comportamiento singular, ya realizados o por desarrollar, o la concurrencia de una situación, debiendo el beneficiario cumplir las obligaciones materiales y formales que se hubieran establecido.

c) Que el proyecto, la acción, conducta o situación financiada tenga por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública".

Gizarte-larrialdietarako laguntzen onuradunak ez du onura publikoko edo gizarte-intereseko jarduera edo helburu publiko bat sustatzeko inolako jarduerarik egin behar.

Artikulu horrek, era berean, honako hau ezartzen du 4. atalean:

"No tienen carácter de subvenciones los siguientes supuestos:

- a) Las prestaciones contributivas y no contributivas del Sistema de la Seguridad Social.*
- b) Las pensiones asistenciales por ancianidad a favor de los españoles no residentes en España, en los términos establecidos en su normativa reguladora.*
- c) También quedarán excluidas, en la medida en que resulten asimilables al régimen de prestaciones no contributivas del Sistema de Seguridad Social, las prestaciones asistenciales y los subsidios económicos a favor de españoles no residentes en España, así como las prestaciones a favor de los afectados por el virus de inmunodeficiencia humana y de los minusválidos.*
- d) Las prestaciones a favor de los afectados por el síndrome tóxico y las ayudas sociales a las personas con hemofilia u otras coagulopatías congénitas que hayan desarrollado la hepatitis C reguladas en la Ley 14/2002, de 5 de junio.*
- e) Las prestaciones derivadas del sistema de clases pasivas del Estado, pensiones de guerra y otras pensiones y prestaciones por razón de actos de terrorismo.*
- f) Las prestaciones reconocidas por el Fondo de Garantía Salarial (...)"*.



Dirulaguntzen Lege Orokorrak beren-beregi baztertzeko dituzte; hortaz, araudi hori ez da aplikagarria prestazio ekonomiko hauentzat. Bere aplikazio-eremutik baztertzeko diren prestazio ekonomiko horiek GLLen antz gehiago dute.

LAUGARRENA. GLLek, hala ere, aldizkakoak ez diren prestazio ekonomikoak dira, gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu zehatzei (ohikoei edo ez ohikoei) aurre egiteko nahikoak ez diren baliabideak dituen bizikidetzaren unitate bat osatzen duten pertsonen zuzenduta daudenak. Dirulaguntzak ematen dira 4/2011 Dekretuaren 5., 6. eta 7. artikuluetan ezarrita dauden baldintzak betetzen direnean, eta Dekretuak aurreikusten dituen gainerako baldintzak betetzen direnean.

Gizarte-larrialdietarako laguntzak lortzeko beharrezkoa da benetako premia larriko egoeran egotea:

21. artikulua (urtarrilaren 17ko 16/2017 Dekretuaren bidez adostutako aldaketaren idazketan):

Gizarte-larrialdietarako laguntzak eman aurretik, erreferentziazko oinarrizko gizarte-zerbitzuak kasu guztietan egiaztatu beharko du benetako premia-egoera dagoela eta laguntza horiek egokiak direla egoera horri aurre egiteko; era berean, helburu horretarako kreditua ezarrita dagoela ere egiaztatu beharko da. Laguntzak ematea premia-egoerari aurre egiteko desegokia dela baloratzeko, kontuan hartuko da, bereziki, inguruabarrak edo aurrekariak egotea, adierazten dutenak arriskua dagoela laguntza erabilerara okerra edo xedearekin bat ez datorrena egiteko.

Laguntza horiek emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan xede horretarako nahikoa kreditu egonez gero (4/2011 Dekretuaren 2. artikulua).

GLLak emateko, hortaz, ez da proiektu bat egin behar, hori dela eta, ez da justifikatu behar proiektua egin izana, ez eta eskabidean aurkeztu den aurrekontua ere.

Gizarte-behar Larrietarako Laguntzak eman ondoren, onuradunak izandako gastuen fakturak eta ziurtagiriak aurkezteko betebeharra du.



25. artikulua honakoa ezartzen du berariaz:

“1.– 22. artikuluan adierazitako fakturak edo ziurtagiriak aipatutako epean aurkezten ez badira, behar ez bezala edo ez dagokion neurrian jasotako prestazioak itzuli beharko ditu onuradunak, hori ezarriko baitio Udalak.

2.– Horrez gain, onuradunak gizartelarrialdietarako laguntzak behar ez bezala edo ez dagokion neurrian jaso baditu, itzuli egin beharko ditu, dekretu honen 18. artikuluan aurreikusitako dirubaliabide eta gizarte-prestazioen ordainketa aztertu ondoren; halaber, Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuko 53.1 artikuluko b), c), d) eta e) idatz-zatietan jasotzen diren kasuetan ere itzuli beharko ditu.”

Arau-aurreikuspen hori aplikatuz, adierazitako epean gastuen fakturak eta ziurtagiriak aurkezten ez direnean zenbatekoa itzuli behar da. Baita zenbateko hori jasotzea egokitzen ez bazaio ere, hau da, pertsona hori beste prestazio ekonomikoen onuraduna bada edo azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren 53.1. artikuluko b), c), d) y e) ataletan aurreikusitako kasuren bat ematen bada. Legegintza Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolatzeke Arauei buruzko Legearen testu bategina onartzen du. Honako hauek dira kasuak:

b) Laguntza edo dirulaguntza lortzea, horretarako eskatzen diren baldintzak izan gabe.

c) Laguntzak edo dirulaguntzak emate-erabakian zuen helburua ez betetzea.

d) Laguntzaren edo dirulaguntzaren emate-erabakian ezarritako baldintzak ez betetzea.

e) Lege honetan ezarritako kontrol-jarduketak oztopatzea edo uko egitea.

Kexagileak ez du aurreko kasuetako bat ere egin; aitzitik, laguntza jasotzeko ebazpenean ezarritako baldintzak bete ditu.

Erandioko Udalaren GLLk emateko 1363/2018 Ebazpenak, 2018ko ekainaren 15ekoa (horren arabera ematen da Gizarte-larrialdietarako laguntza), soilik adierazten du kontzeptu zehatzen arabera ematen direla laguntza horiek, eta helburu jakin bat betetzeko izaera dutela, hau da, eman diren helbururako soilik erabili daitezke.

Ebazpen horrek aurreikusten du Udalak egiaztatuko duela helburua errespetatu den, beraz, prestazioaren onuraduna behartuta dago adierazitako epean fakturak eta ziurtagiriak aurkeztera.



Azken batean, Arartekoaren ustez, ez GLLak arautzen dituen araudiak, ezta emakidaren ebazpenak ere, ez dute laguntzaren zenbatekoaren egiaztapenik eskatzen. Eskatutako zenbatekoa justifikatzea kasu honetan aurreikusten da: gizarte-intereseko jarduera edo proiektu bat egiteko diruzko xedapenak direnean. GLLek ez dute helburu hori, eta beren izaera pertsonen oinarrizko beharrianak asetzerantz bideratutako beste prestazio ekonomiko batzuen antzekoa da, gizarte- eta ekonomia-zaugarritasun egoeran daudelako.

Araubide juridiko aplikagarria dagoeneko adierazitakoa da: 18/2008 Legea eta 4/2011 Dekretua, beren aldaketekin, 16/2017 Dekretua eta 85/2018 Dekretua, bai eta gastuetako bakoitzeko gehieneko zenbatekoak ezartzen dituzten urteko aginduak, kontsignaturiko kredituak banatzeko irizpideak eta aurrekontu-muga.

Hori dela eta, Arartekoaren iritzia, eskaturiko laguntzaren zenbateko osoa egiaztatze eskakizunak ez du arau-babesik.

Horregatik guztiatik, Arartekoak gomendio hau egiten dio Erandioko Udalari, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

GOMENDIOA

Berrikus dezala justifikazio osagarriaren errekerimendua gizarte-larrialdietarako laguntza gisa, ez duelako arau-babesik, eta itzul dezala errekerimendu horri erantzunez ordaindutako zenbatekoa.

